


A S T E K O L I B U R U A

AMODIOAREN GAINEKO NOBELA GARRATZA




**IPUIN BATEAN
BEZALA**
Joan Mari Irigoien
ELKAR
266 orrialde
15 euro

Zoritxarrari irri bat edo beste osteko gai izaten ahalegindu nahi du "Ipuin batean bezala" Joan Mari Irigoien azken nobelako protagonistetako batek, eta badu arrazoirik franko horretarako: izan ere, maitasun kontuetan ia ia etsita zegoela ezagututako bere bihotzeko emakumeari eta elkarrekin izan zuten alabari gertatuko zaien ondoeza ez baita nolana hikoia! Baina haiek hiesaren atzaparretan daudela jakin aurretik ere, adoretu egin behar izan du bizitzan borroka, hainbeste maite duen emakumeari drogen zulotik ateratzen laguntzeko. Emakume hori, maitasu-

naren eta bizimodu alternatibaren atzetik abiatu zen gaztetar Alpujarretara. Urte ezti batzuer ondotik, ordea, paradisua infernu bilakatu zitzaion eta droger munduan erori zen. Asko kostata hasiko zen tunelaren bukarran argi izpi bat ikusten, eta oraindik indar gehiago bildu behar izango zuen bere arbasoer herrira itzultzeko eta batik bat han zain zeukan bere amarer gaitzespenari aurre egin ahal izateko. Gero, maitasuna berrir ezagutu eta gauzak poliki samar joaten hasi zitzaizkionean, beste behin kolpatuko zuen bizitzak hiesa gaixotasun gogorra ezarritzian.

▼ Egileari Galdezka

"Beti izan dut hiesaren kezka nire barruan"



Joan Mari Irigoien

ALBERTO ELOSEGI

■ Zeintzuk izan dira zure nobela honen nondik norakoak?

Duela hamar bat urte ETBk eman zuen Elgoibarko hiesaren inguruko programa bat, eta hura ikusitakoan erabat hunkitua geratu nintzen. Geroztik gertatu izan dira makina bat gauza hiesa dela eta, baita Altzan ere -adibidez, gogoan ditut nire etxearen aurrez-aurre bizi ziren bi anaia, zoritxarrez hiesak jota joan zirenak-. Beraz, beti izan dut hiesaren kezka nire barruan, eta halako batean, futbolaren inguruko liburua idazten ari nintzela (umorezkoa, lehen idatzi nuen "Kalamidadeen liburua"ren ildotik zihon) barruan nuen kezka hori esnatu eta istorio hau nagusitu zitzaidan.

■ Hiesa da, beraz, "Ipuin batean bezala" nobelaren ardatza?

Nik ez nuke esango hori bakarrik denik, bi istorio kontatzen baitira bertan: mediku bezala Altzara datorren añaogatar batek lehen pertsona kontatzen du bere esperientzia. Medikuek, kontsultan ezagutzen du nobelako beste protagonista.

■ Eta nor dugu beste pertsonaia hori?

Gure belaunaldiko emakume tipiko eta topikoa izan daiteke. Halako bizimodu alternatibo baten bila abiatu, Alpujarretara joan, han ustez paradisua aurkitu duenean infernuarekin topo egin, eta drogen munduan sartzen dena. Gero, honantza itzuli eta mediku horrekin maitemintzen da, baina hiesa datorkio. Nobelaren azkenengo zatian gertatzen da hori, baina hiesa izan zen lan honen abiapuntua, zeren askotan, bizitza gaizki datorkigunean, begiak ixten ditugu, baina nik egunero kolpatzen gaituzten kaka zahar hauek guztiak kontuan edukita eraiki nahi nituzke nire esperantzak. Nobela oso gogorra da, baina badago ahalegin bat samurtasunaren bidez errealitate gordin izugarri horri buelta emateko.